



## **SEGURAKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUEN ALDAKETAK 1. EREMUKO “HIRIGUNE HISTORIKOKO” ETA MONUMENTU MULTZOEN BABESERAKO EREMUKO INGURUNEAN DUEN ERAGINARI BURUZKO ALDEZ AURREKO TXOSTENA**

Otsailaren 27ko 3/1998, Legeak, Euskal Herriko Ingurugiroaren babesari buruzkoak, 41, artikuluan xedatutakoari jarraiki; eta uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa arautzen duenak, 3, artikuluan xedatutakoari jarraiki, lurzoru hiritarrezinari erasaten dioten hiri antolaketako arauak aldatzeko, aldez aurretik aldaketa horiek ingurumenean duten eraginari buruzko osoko derrigorrezko ebaluazioa egin behar da.

2009ko urtarrilaren 22an, Segurako Udalak, Segurako hiri antolaketako arauetan, “Hirigune historikoari”, hots, 1. eremuari eta Monumentu multzoaren babeserako eremuari buruzko hiri antolaketako arauen aldaketa puntuala egiteko txostena eta planoak aurkeztu zituen Garapen Iraunkorrerako Departamentuan, baita aldaketa horri dagokion ingurumenean duen eraginari buruzko osoko ebaluazioa ere. Halaber, Segurako Udalak eskatu zuen dagokion txostena egitea.

Eskaera hori jaso ondoren, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, administrazio eta erakundeei kontsulta egin zien, Segurako Udalak proposatutako aldaketari buruz zuten iritzia jakiteko, eta halaber, aldaketa horiek ingurumenean izan dezaketen eraginari buruzko ebaluazioan zer alderdi kontuan hartu behar diren jakiteko. Administrazio eta erakunde hauei egin zien kontsulta:

- GFAko Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusia
- GFAko Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- GFAko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia
- GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia
- GFAko Bide Azpiegituren Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia
- IHOBE
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza
- Euskal Ur Agentzia
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituretako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza
- Kantauriar Isurialdeko Konfederazio Hidrografikoa (Ingurumen, Landa eta Itsasoko Ministerioa)
- Eguzki talde ekologista
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista
- Aranzadi Zientzia Elkarte
- Sasieta Hondakin Mankomunitatea
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- EHNE (Euskal Nekazarien Batasuna)



- Goieki S.A.
- Goimen

Erantzunak bidaltzeko jarritako epea amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzaren txostena bakarrik jaso zen. Bertan aipatzen zen Plan hori egiteak ez zuela kalte handirik sortzen osasun publikoan; hots, ingurumenean izan dezakeen eraginari buruzko azterketa egitean, eta haren ebaluazio-prozesua egitean kalte horiek ez direla kontuan hartzeko modukoak.

Proposatutako aldaketak Segurako Hiri Antolaketako egungo Arauek "Monumentu multzoaren babes-eremua" izendatzen duenari eragiten dio. Eremu hori lurzoru hiritarrezinean dago, eta aurreko antolaketarekin konparatuz, honako aldaketak egitea proposatzen du:

Eremu horretako 3.500 m<sup>2</sup> 1. Eremura, "hirigune historikora" pasatzea. Eremu horren hirigintza kalifikazioa aldatzearen helburua da Zerkalde Kalea handitzea, bi norabidetakoa, herriguneko motordun mugikortasunerako banatzaile nagusi izateko funtzioa izan dezan, eta horri esker, Hirigune Historikoko beste kale guztiak oinezkoentzat egiteko. Era horretan, 6 metro zabalerako bide bat egitea aurreikusi da. Bide horren ekialdeko aldean 97 bateriako aparkaleku jarriko dira; eta mendebaldekoan, berriz, 23. Halaber, mendi-hegaleko baratza-eremua eta kalea banatzen dituzten hormak kentzea aurreikusi da.

"Monumentu multzoaren Babes-Eremuaren" barne dagoen gainontzeko lursaila; hots, Zerkalde kalea eta Laiotz ibarraren atzealdearen artekoa, udalerriko Esparru Libreen Sistema Orokorrean pasako da, egun baratzak dauden lurzoruan, erabilera publikorako hiri parke bat egiteko, eta era horretan, Monumentu Multzoaren ondoan dagoen paisaia hondatua eraberritzeko.

Ingurumeneko eraginari buruzko osoko ebaluazioaren azterlanak, Udalak bidalitakoak, Aldaketaren helburu estrategikoak aipatzen ditu, beste plan edo programekin duen elkarreragina aztertzen du; eta erasandako eremuko ingurumenaren azterketa, diagnostiko eta balorazioa egiten du. Horrez gain, hautabideen ingurumen-azterketa egiten du, Aldaketan egindako proposamena eta "0" hautabidea, ez esku-hartzearena, alegia, kontuan hartuz.

Jarraian, Ingurumen Eraginari buruzko Azterlanak aurreikusi daitezkeen ingurumen eraginak identifikatu eta azaltzen ditu, neurri babesle, zuzentzaile eta orekatzaileak proposatzen ditu, ingurumen ikuskapenerako programa bat ezartzen du, eta sintesi-agiri bat ere aurkezten du.

Beraz, Azterlan horren edukia uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzekoak, eranskinean xedatutakoa betetzen du.

IEA azterlanak Aldaketaren eragin positibo gisa identifikatzen du hiri ingurumenaren kalitatea hobetzea (hirigune historikoan zirkulazioa gutxitzearen ondorioz), eta eragin negatiboak, berriz, garrantziaren arabera sailkatzen ditu.

Era horretan, ingurumeneko eragin bat ere ez du *oso garrantzitsu* gisa sailkatzen.

Eragin *garrantzitsu* gisa aipatzen du lanek irauten duten epean, kutsadura atmosferiko eta akustikoa handituko dela.

Eragin ez *oso garrantzitsu*en artean, aipagarriak dira, lanek irauten duten bitartean, animalien habitata gutxituko dela, paisaia-kalitatea gutxituko dela, Laiotzeko ubideko uraren kalitatea gutxituko dela, hondakin gehiago sortuko direla, balio estrategiko handiko lurzoru gutxiago egongo direla; eta ustiapen-epean, berriz, Zerkalde kalean kutsadura atmosferiko eta akustiko handiagoa egongo dela aurreikusi da.



Azkenik, *garrantzitsuak ez diren eragin* gisa, landaredia kentzea, animalia-aleak zuzenean kenduko direla eta lurrazpiko uraren kalitatea gutxitu egingo dela aipatzen da.

Neurri babesle, zuzentzaile eta orekatzzaileen proposamenaren barne, besteak beste planeamendu-fasearen barne, honakoa proposatzen da: galduko diren baratzek betetzen duten azalera bereko lursaila berriz jartzea bideragarria ote den aztertzea, erasandako eremuan dauden intxaurrondo handiak errespetatzeko aukera aztertzea, eta ondarea babesteko neurriak kontuan hartzea, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroko txostena zehaztu ahal izateko.

Lanak hasi aurretik, Ingurumenaren Eraginari buruzko Azterlanean xedatutakoaren arabera, gainazaleko ura babesteko neurriak hartzea proposatzen da, baita okupatu beharreko azalera mugatu eta lanen ondorioz sortutako hondakinak modu egokian kudeatzea ere.

Azkenik, lanek irauten duten fasean, landaredi-eremuak ez galtzeko neurriak hartzea proposatzen da, obra-makineria mantentzea, kultura ondarea babestea bai zarata nahiz bibrazioen aurka; eta azkenik, garbiketa kanpaina egin eta paisaia berritzea ere.

Ikuskapen-programak, bestalde, jarraipena egin beharreko ingurumen-aldagai gisa definitzen ditu landaredia, uraren kalitatea, ondarea, hondakinak, lurzorua, zarata eta paisaia.

Aurkeztutako dokumentazio teknikoa aztertu ondoren, eta uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 3 eta 5. artikuluek; otsailaren 27ko 3/1998 legeko 44.2 artikulua xedatutakoa betez; eta uztailaren 28ko 68/1998 Foru Dekretuak eta maiatzaren 20ko 36/2008 Foru Dekretua kontuan hartuz, plana onartzeko eskumen nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dagoenean, alde aurreko txostena egin eta ingurumeneko eraginari buruzko behin betiko azterlana egiteko eskubidea Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuaren esku dago.

Aipatutako guztia kontuan hartuz, eta uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 18. artikuluan aurreikusitako betez, honakoa

## XEDATZEN DUT

**Lehenengoa.-** *Segurako hiri antolaketako arauen aldaketak "Hirigune Historikoa" 1. eremuko eta monumentu multzoen babeserako eremuko ingurunean duen eraginari buruzko alde aurreko txosten* hau egitea.

**Bigarrena.-** Aldez aurreko txosten honetan eta ingurumen eraginari buruzko osoko ebaluazioaren azterlanean ageri diren ingurumen xedapenak, ahal den heinean behintzat, indarrean dagoen legediaren arabera, Aldaketa hasiera batean, behin behinean eta behin betiko onartzeko behar diren dokumentuetan (Txostena, Planoak eta abar), baita, garapenaren planeamenduan ere.

**Hirugarrena.-** Hiri Antolaketako Arauen aldaketa eta dagokion ingurumen eraginari buruzko osoko ebaluazioaren Azterlana aldaketak, bere biderapen prozesuan zehar duten xehetasun-mailaren arabera aldatu beharko dira, betiere xedapen hauek kontuan hartuz:



1. **Ingurumen eraginaren osoko ebaluazioaren Azterlanean gehitu beharreko informazio osagarria.** Ingurumen eraginaren osoko ebaluazioaren Azterlana osatzeko, Aldaketa dela-eta, Zerkale kalean gertatuko den zirkulazio gehikuntzaren ondorioz, horrek bertako soinu-kalitatean izango duen eragina azaldu beharko da, baita bertan bizi diren pertsonen lasaitasunean izango duen eragina ere.
2. **Neurri babesle, zuzentzaile eta orekatzaileak.** Ingurumen eraginaren osoko ebaluazioaren Azterlanean, atal honetan xedatutako neurri babesle, zuzentzaile eta orekatzaileak jaso beharko dira. Halaber, Zerkale kalean nahiz kale horren eta Laiotz ubidearen artean egingo den hiri parkean egingo diren hiritartze-proiektuetan neurri horiek zehaztuko dituzte, eta azkenean, egindako aukerara egokituko dituzte.
  - 2.1. **Laiotzeko ubidearekiko eta ibaiertzeko basoaren babesarekiko erretiroak.** Lursail naturala edonola aldatzeko, Laiotzeko ubidearen ibilguarekiko erretiro bat errespetatu beharko da. Erretiro hori Euskal Autonomia Erkidegoko ibai eta erreka-ertzak antolatzeko lurraldearen antolamendurako arloko planak xedatutakoaren arabera izango da gutxienez, baina antolakuntzak baimentzen badu, handitu egingo da, era horretan korridore ekologikoaren funtzioa beteko lukeen baso-galeria bat ezarri ahal izateko. Ildo horretan, hiri parkearen diseinua egitean, egoera onean dagoen ibaiertzeko basoa errespetatu beharko da, eta hondatuta dagoen eremuetan, hura berritzeko saiakerak egin behar dira.
    - 2.2. **Iraunkortasun-irizpideak hiritartze-jardueretan**
      - 2.2.1. Hiri parke berria diseinatzean, ahal dela mugatu egin behar dira urarekiko iragazkorrak ez diren zoladura guneak, terenoaren iragazpen naturala mantentzea komeni baita.
      - 2.2.2. Hiritartzeko lanak egiterakoan, atxikitako lursailetan egon litezkeen egoera oneko zuhaitzak gorde ahal izateko neurriak hartuko dira, esaterako, IEAn zehaztutako intxaurrendak. Hala, hiritartze proiektuak egiteko garaian, lursailen antolamendua diseinatzerakoan arbolak kontuan hartu beharko dira eta/edo obrak egiteko orduan jokamolde egokiak erabili –adibidez, arbolen inguruan hesiak jartzea, adar irtenen proiektzioa hartzen duen gainazal osoa gutxienez barnean hartuta-. Nolanahi ere, arbolak ezin badira beren lekuan utzi, eta beti ere biziraupena ziurtatzen bazaie, beste toki batera eramango dira, Aldaketaren eremu barruan nahiz kanpoan.
      - 2.2.3. Birlandatze lanetan, zaintze eta ureztatze gutxi behar duten landare espezieak erabiltzera jo behar da. Era horretan, urtekoak ez diren bertako espezieei edo Gipuzkoako klimaren ezaugarrietara ongi egokitzen direnei eman behar zaie lehentasuna. Birlandatze lanean, inoiz ez dira erabiliko espezie inbaditzaileak izan daitezkeenak. Ura aurreztu eta berrerabiltzeko sistemak bultzatuko dira berdeguneak ureztatzeko.
      - 2.2.4. Jarduera-eremuetako kanpo-argiztapenerako, argia behar duten lekuetara zuzendutako argiak bakarrik erabiliko dira, era horretan gainontzeko lekuetan argi eragina ahalik eta txikiena izan dadin, eta aldi berean, energia aurrezteko.



**2.3. Neurri zuzentzaileak lanen faserako.** Lanen ingurumenean duten eragina gutxitzeko neurri zuzentzaile hauek hartu beharko dira.

- 2.3.1. Lanek irauten duten bitartean, ahalik eta zarata gutxien sortu beharko da. Lanak egiteko erabilitako makina eta ibilgailuen soinu emisioak 212/2002 Errege Dekretuak, zenbait makina aire librean erabiltzean sortzen diren soinu igorpenak arautzen dituenak, zehaztutako mugak bete beharko ditu.
- 2.3.2. Hauts-igorpenak arindu egin behar dira, noizean behin bideak ureztatuz, lan-lekuen inguruan sortutako hauts-geruzak garbituz, materialak kargatu eta deskargatzean ahalik eta hauts gutxien altxatuz, kamioien zama estaliz eta abar.
- 2.3.3. Lan-plan bat diseinatuko da (jardueren banaketa, lan-ordutegiak eta abar), inguruko populazioari ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko.
- 2.3.4. Isurketak Laiotz ibaira. Lanak hasi baina lehen, Uraren Euskal Agentziari baimena eskatuko zaio, lur-mugimenduen ondorioz, elementu solidoz kutsatutako eskorrentia-urak ibaira isurtzeko.
- 2.3.5. Hiritartze-proiektuen barne, txabolak edo bestelako eraikinak bota behar badira, eraispen-plan bat egin beharko da, eta bertan, amiantoa edo bestelako hondakin arriskutsuak izan ditzaketen materialak kudeatzeko beharrezko prebentzio- eta segurtasun-neurriak zehazteaz gain, IHOBK *eraispen selektiboak egiteko gida metodologikoan* egindako xedapenak bete beharko dira, eraispenaren ondorioz sortutako materialak ahalik eta gehien aprobetxatu eta ahalik eta material gutxien zabortegira eramateko.

3. **Ikuskapen programa** osatzeko, kontrol berriak ezarriko dira, alde aurreko txosten honetan aipatutako neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatzeko. Horrela, kontrol bakoitzean, parametro neurgarrietan erabiliko diren adierazleak, muga-mailak edo erreferentzia-mailak zehaztuko dira, baita kontrol horiek zenbatean behin egingo den eta nork egingo dituen ere. Azkenik, ikuskapen-programa martxan jartzeko kostu ekonomikoaren estimazioa egingo da.
4. Aldaketan hirigintza-dokumentazioak aipamen zuzena egingo dio hiritartze-proiektuen baldintza teknikoek pleguek babes-neurriak eta ingurumen-jagoletza programa bete behar dituztela, hain zuzen ere ingurumen eraginaren osoko ebaluazioaren Azterlaneko 7 eta 8. ataletan proposatutakoak, betiere alde aurreko txosten honen arabera egokitutakoak, era horretan, aldaketan proposatutako hiritartze-jardueran bideragarriak direla bermatzeko. Aipatutako neurri babesle eta zuzentzaile guztiez gain, neurri horiek behar bezala xedatuta eman beharko dira, eraginkorrak direla bermatzeko. Ildo horretan, neurrien aurrekontuak egin badaitezke, neurri horiek lan-unitate gisa zehaztu beharko dira; hots, proiektuetan dagokion kontusailaren barne sartu beharko dira, eta aurrekonturik egin ezin bada, baldintza teknikoek pleguan zehaztu beharko dira.

**Laugarrena.-** 183/2003 Dekretuak, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa arautzen duenak, 7.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko alde aurreko txosten hau, Hiri Antolaketaren arauen Aldaketaren barne dauden gainontzeko dokumentuekin batera, indarrean dagoen legediak Plan hori bideratzeko xedatutako moduan jendaurrean jarriko da.



Donostian, 2009ko apirilaren ...an

**INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA,**

**Sin: JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA**